

Zartagia kirtenetik

Goitizena: Tadoussac

PERTSONAIAK:

Katalina: 69. Etxeko andrea, inozoa, koldarra, sufritua.

Enkarna: 71. Etxeko Andrea eta hackerra, ausarta, bizia eta iruzurtia.

Martintxo: 31. Langabezian, lotsatia, tentela, umemokoa eta gatzgabea.

Susi: 27. Ikaslea eta modeloa, aberaskumea, artoa, makarra.

1.ATALA/ 1.AGERRALDIA

HERRIKO PLAZA. KATALINA BANKU BATEAN ESERITA DAGO.

TXORIAK ETA KANPAI HOTSA.

F/X Whatsapp mezu soinua. Mezua ireki. Tekleatu.

KATALINA: (Mezua irakurriz, idazten ari den bitartean) Nik ere ezin dut segundu bat bera ere zugan pentsatu gabe egon. K P M Z, Kriston pila maite zaitut.

F/X Bidali mezua.

F/x Oin pausu hotsak eta gelditu.

ENKARNA: Katalina! Ze sorpresa! Zure super mobil berriari partidua ateratzen ala?

KATALINA: (Disimulatuz) Beno, bai badakizu....

ENKARNA: Jesus, zeinen arraroa zu hemen eguzkitan hain gustora ikustea. Bidali al dituzu antzerrak perratzerara senar eta seme izeneko zorriak?

KATALINA: Mesedez Enkarna, ez zaitez hain astoa izan.

ENKARNA: Zure ondoan eseriko naiz, haize piskatek ongi egingo dit eta. (Eseriz) ah!. Postetxera joan beharra dut zerbait hartzera. Ordenagailuarentzako geodeslokalizatzaile bat erosi dut baina ez daukat presarik, C.I.A ez da hain azkarra. Jajaja!

KATALINA: Zer hartu behar duzula???

ENKARNA: Ezer ere ez emakumea. Tramankulu bat. Azaldu nizun eman ohi dizkizudan informatikako klaseetako batean. Beno eta, zer moduz kartzelan?

KATALINA: Etxean?

ENKARNA: Nahi diozun bezala deitu.

KATALINA: Berririk gabe. Martin egunero 8tan irtetzen da etxetik arrantzatzeko kaña eta atun bokadilo goxo goxo eskutan hartuta.

ENKARNA: (Etenez) Bokadiloa zuk egina, noski.

KATALINA: ...bai noski. Eta tira, beti bezela itzuliko da gosez amorratuta, kiskila ziztrin bat arrantzatu gabe.

ENKARNA: Hori bai pare bat potro ondo jarriak!. Nola izan zaitezke hain tentela. Askatu zaitez Katalina, bizitzaz disfrutatu. Begira ni!

KATALINA: Noski! Zuretzako oso erraza da, zure senarra hilda dago!

ENKARNA: Ez dizut bera akabatzeko esan nahi, baina hilik balego bezala egin zenezake.

KATALINA: Beno, beno, beno.... (Etsiz) Hau da tokatu zaiguna, onerako eta txarrerako!

ENKARNA: Kontu txarrekin jarraituz, zer moduz zure seme memelo horrekin?

KATALINA: Aizu! Errespetu piska bat, mesedez! Nire Martintxo maitearekin ez zaitez sartu!

ENKARNA: Jesus! Barkatu emakumea, nik ez daukat semerik eta! (Ironiaz) Nola doakio ba gure Martintxo kuttunari mundu maltzur honetan?

KATALINA: (Atsekabez) Ene... kontatuko banizu, ez dakizu ondo. Langabezian, neskalagunik gabe, ez dauka ez ametsik ez eta bizitzeko ilusiorik. Mamu bat dirudi. Bere logelan sartu eta orduak ematen ditu konputagailuaren aurrean. (Hunkituta) Bere ahotsa ere ez dut gogoratzen, zerbait esaten diodan bakoitzean marmarka bi erantzun besterik ez ditu.

MARTINTXO: (AJA)

KATALINA: Baietz esateko. Eta..

MARTINTXO: (PFFF)

KATALINA: Ezetz esateko. Ondoak jota nago!

F/X Usoak urrunean.

ENKARNA: (Amorruz) Begira!

KATALINA: Zer?

ENKARNA: Han! Xagu hegalariak.

KATALINA: Usoak? Jada ez diezu jaten ematen?

ENKARNA: Lehengo batean, jaten ematen ari nintzaien bitartean, hiruk burutik behera kaka egin zidaten. 5 urtez Katalina! 5 urtez jaten ematen eta horrela ordaintzen didate! Baina itxoin bai, internet bidez erositako pozo poltsa iristea. 3 segundutara espasmo muskularrak, 5.-an konbultsioak, 7.-an paralisia eta 10 segundu ondoren (ingles txarrean) *game over*, nerbio sistema akabo. Kaputt (tonu aldaketa) eta zer asmo dezu?

KATALINA: (Nahastuta) usoekin?

ENKARNA: Ez emakumea! Zure semearekin! Martintxorekin! Zerbait egin beharko duzu ba, ezta?

KATALINA: (Misteriotsu) Enkarna, zerbait aitortu behar dizut.

ENKARNA: Esan, badakizu nirekin esku onetan zaudela.

KATALINA: Ezin dut gehiago Enkarna. Zure laguntza behar dut, ez dakit hemendik nola irten. Hau da hau kalbarioa!

F/X Whatsapp mezu soinua.

KATALINA: (Misteriotsu) Bera da.

ENKARNA: Zer! Maitale bat! Ai ene! Maitale bat daukazu!

KATALINA: Ez, ez, ez. Martintxo da.

ENKARNA: (Nahastuta) Zer? Zure semearekin whatsapp mezuak bidaltzen zabilta?

KATALINA: Bai... baina ez.

ENKARNA: Zer esan nahi duzu?

KATALINA: Berak ez daki zertan dabilen.

ENKARNA: Ez dut ezer ulertzen Katalina.

KATALINA: Berak beste pertsona bati idazten dio.

ENKARNA: Nola? Telefonoa zulatu diozu? Baina, oraindik ez gara gai hortara iritsi.

KATALINA: Ez. Berak ni beste bat naizela uste du. Leti91. Neska beltzarana, 21 urte, metro eta 80, argala, begi berdeak, oso ederra, begira...

F/X Telefono hotsa, argazkia ireki.

KATALINA: Internetetik hartu nuen argazkia, Australiako kontaktu web orrialde batetik.

ENKARNA: Joder Katalina, modelo bat dirudi!

KATALINA: Martintxok hau eta gehiago merezi du. Baina hau ez da guztia, berataz zeharo maiteminduta nagoela uste baitu!

ENKARNA: Ez!

KATALINA: Bai. Beretzat bere Leti naiz, bere Kukurruleti.

ENKARNA: Kukurruleti?

KATALINA: Bai. Eta bera nire Kukurrutxo.

ENKARNA: Kukurrutxo! Mesedez....

KATALINA: Bai, Martintxo, txo, kukurrutxo. Nere Martintxo gaixoa.

ENKARNA: Noski, horregatik nahi zenuen whatsapp-dun mugikor horietako bat erosten laguntzea eta mezuak

idazten erakusteko irrika hori... Baina zergaitik Katalina?

KATALINA: Berarekin hitz egin ahal izateko, ez baitit inoiz hitzegiten. Gainera idazten nionaren arabera, mezuek poztu egiten zutela konturatu nitzen.

ENKARNA: Mezuek ez, gezurrek.

KATALINA: Hasieran dena erraza zen, zein argia eta jatorra den esaten nion. Bera den bezalako, gezurrik gabe. Piskanaka Martintxo aldatu zela igarri nuen. Oraindik ez zidan hitzegiten baina pozik ikusten nuen. Eta badakizu, ama batentzat bere semea pozik ikustea baino ezer hobeagorik ez dago. Baina gero...

ENKARNA: Gero zutaz maitemindu zela esan zizun ezta? Eta zuk, Kukurruletik, bihotza hautsi baino, berataz maitemindu zinela esan zenion.

KATALINA: (Negarrez) Bai... Eta orain elkar ezagutzea nahi du.

ENKARNA: Baina, nola? ez da posible.

KATALINA: (Negarrez) Bihar, arratsaldeko 7tan.

ENKARNA: Ez daukagu denbora galtzerik Katalina. Ideia bat bururatu zait.

KATALINA: (Negarrez) Eskerrik asko Enkarna, banekien zuk ulertuko zenuela. (Serio) Baina ez da legez kanpoko zerbait izango ezta?

ENKARNA: Ez du zertan. Guk zartagia kirtenetik dugu, ikusiko duzu. Hala ere ez ahaztu momentua iritsiko balitz, badakizu, (Apoteosiko) *“el fin justifica los medios”*.

2.ATALA/ 1.AGERRALDIA

KATALINAREN ETXEKO KOMUNA. ITURRI HOTSA.

KATALINA: Ezetz ba Enkarna! Ez segi, nik ez ditut begiak hainbeste margotuko.

ENKARNA: Katalina. Beharrezkoa da eta kito!

KATALINA: Ze beharrezkok eta *ocho cuartos*? Gainera beltzez, Ze Itsura! Ta gutxi balitz ezpainak zilarrez, ene ene, Erotu zara? Mesedez... Emagaldu batzuk dirudigu, Mari-urdanga batzuk. Ene!

F/X amorruz iturria itxi.

ENKARNA: (Bapatean moztuz) Nahikoa da Katalina! Utzi tontokeriak alde batera! Nola uste duzu doazela gaur egungo neskak jantzita? Urdanga batzuk bezala! Nola bestela? Gaur egun neskek ez dute lotsarik, ipurdiak eta titiak ia bistan daramatzate! Larunbatero kalean ikusi besterik ez dituzu!

KATALINA: (Harrituta) Bai? Aitaren eta semearen...

ENKARNA: Benetan Katalina, batzutan ez dakit itsua ala inozoa zaren, ala biak!

KATALINA: Eta auzoko inork horrela ikusten banau?

ENKARNA: Katalina, zer da garrantzitsuagoa, auzoko batek pentsatzen duena ala zure semearen etorkizuna?

KATALINA: Hummm... Nire semearen etorkizuna.

ENKARNA: Ba listo Katalina. Gaur egungo gaztediak itsurari garrantzia haundia ematen dio eta hortara moldatu behar dugu. Beraz, "*operación camuflaje*"

KATALINA: Enkarna, Jaungoiko maitea, hala ere zaharrak garela konturatuko dira eta gainera eroak!

ENKARNA: Katalina, hau gauza espiritualala da. Gu, beraien artean zenbat eta gustorago sentitu, gainontzekoak orduan eta gustorago sentituko dira gurekin. Eta horrela gure helburua errezago lortuko dugu. Martintxorentzako neska aproposa aurkitzen dugunean eroso sentitu behar du gurekin. Begira, zer gertatzen da untxi bat tigre batekin kaiola batean sartzen baduzu?

KATALINA: Tigreak untxia jaten duela.

ENKARNA: Eta untxia horiz eta marra beltzez margotzen baduzu? Zer gertatzen da orduan?

KATALINA: Tigreak untxia berdin-berdin jango duela.

ENKARNA: Hori ezin duzu jakin! agian tigreak bere kumetzat hartuko du untxia.

KATALINA: Ezetz, usaindu egingo luke. Enkarna hau erokeri bat...

ENKARNA: Eta Katalina, ezkontza batera zoazenean zer daramazu, txandala?

KATALINA: (Ozen) Ez, ene Maria eta Jose!

ENKARNA: Hori ba! Makillatu egiten zara ezta? Eta daukazun erroparik eleganteenak jazten dituzu. Eta hileta batera bazoaz, beltzez, ezta?

KATALINA: (Ozen) Noski.

ENKARNA: Eta zergaitik?

KATALINA: Ba, horrela joan behar delako.

ENKARNA: Ez! Mundu guztia horrela doalako jantzita Katalina. Pentsa... zakurrez jantzita joango bazina lekuz kanpo sentituko zinateke eta inor ez litzaizuke hurbilduko. Orduan, diskotekara baldin bazoatz

bertakoak bezela jazten eta margotzen zara.
Ulertzen? Fusioa, gure kasuan, ezinbestekoa da.

F/X Motxilaren kremlera zabaldu.

KATALINA: Zer da hau guztia?

ENKARNA: Arropa.

F/X Arropa atera.

ENKARNA: (Arropa ateraz) Narruzko mini-gona tatxeteekin, sareko pantiak. Karabelak, mihiak eta ingelesez ez dakit zer dioten jertseak eta kamisetak, I guana be your dog...

KATALINA: Ezer onik ez.

ENKARNA: (Arropa ateraz) Munekerak, kolorinetako eguzkitakoak, Houston Rockets-en biserak, Ai! Begira! Deportibak, 4 kiloko belarriak dituzten gerrikoak...

KATALINA: Jesus Enkarna, nondik atera duzu guzti hau?

ENKARNA: Nire bizilagunaren alabarena da! Mesede bat zor zidan, "Katakuma Beroak" trilogia deskargatu nion, pelikula pikante horietako bat, interneten aurkitzen zaila dena gainera. Badakizu norentzako den hau guztia ezta?

KATALINA: Ez! Enkarna jainkoaren omenez!, erotu egin al zara? nola kristo nahi duzu erropa horietan sartzea?

ENKARNA: Fusioa Katalina, fusioa, Burgoseko odolcian pentsa zazu. Kukurruletiren argazkirik baduzu?

KATALINA: Bai.

ENKARNA: Etzazu ahaztu, Kukurruletiren antza duen hautagai perfektua aurkitzea da gure helburua.

2.ATALA/ 2.AGERRALDIA

DISKOTEKA KANPOKO LERROA. JENDE HOTSA ETA MUSIKA
TEKHNOA ENTZUTEN DA DISKOTEKA BARRUAN. KATALINA
ETA ENKARNA AHOPEAN HITZ EGITEN ARI DIRA.

KATALINA: (Disimulatzen) Enkarna! Mundu guztia guri begira dago. Eta ahoan *pirxindun* hor aurreko mutil ile berde horrek ez dizkit begiak gainetik kentzen eta izozkia jango balu bezela mugitzen dit mingaina!

ENKARNA: Gazteen hizkuntza da, egizu irribarre Katalina.

KATALINA: Orduan geldituko da?

ENKARNA: Ta nik zer dakit!

KATALINA: (kexatuz) Eta irriparreak etortzeko esan nahi badu, etorri eta izozkia banintz aurpegia miazkatzen badit zer?

ENKARNA: Ba, potroetan ostikada eder bat eman eta kitto!

KATALINA: (Kexatuz) Bai seguru nago hori ere gustoko duela. Ai Enkarna! Hau erokeri bat da!

ENKARNA: Lasaituko al zara Katalina. Sartu bezain pronto bat gehiago izango gara, ikusiko duzu.

KATALINA: (Ironiaz) Horrek guztiz lasaitzen nau. Dena den, oraindik beste 30 lagun daude gure aurretik.

ENKARNA: Isildu eta zentratu zaitetz behingoz! Zure Martintxoren Kukurruleti-a aurkitzeko etorri gara.

KATALINA: (Kexatuz) Tontoarenak egitera etorri gara, horixe! Hau da hau burutazioa!

ENKARNA: (Gogor erantzunez) Ah bai? Agian hobe izango zen Australiara joan eta kanguru artetik argazkiko mari urdanga horren bila ibili, eta hona ekartzea, ezta? Ez dakit konturatzen zaren, baina: bat, Australia

pikutan dago eta 2 Zure seme eta maripurtzil horren arteko zita bihar da. Bihar Katalina! Bihar! Beraz isil zaitez eta atera argazkia behingoz!

F/X Poltsa ireki.

KATALINA: Hemen dago.

ENKARNA: Gogoan izan. Beltzarana, argala, begi berdeak, metro eta 80 eta 21 urte inguru. Hori da aurkitu behar duguna, beraz erne eta etzazu lo hartu.

KATALINA: Bai, bai, panti hauek lehenago akatzen ez baldin banaute. Honezkero ez ditut hankak sentitzen, etzait odolik pasatzen eta.

ENKARNA: Ba dobla itzazu hankak eta gero luzatu.

KATALINA: Nola?

ENKARNA: Pentsa ile berdea duen tipoa datorrela eta aurpegia miazkatzen dizula. Luzatu hanka eta eman ondo hankartean!

KATALINA: (Ahaleginak eginez) Nola, horrela?

ENKARNA: Oso ongi! Orain beste hankarekin.

KATALINA: (Ahaleginak eginez) Argggg!!!

F/X Mini-gona apurtu hotsa.

KATALINA: (Beldurrez) Enkarna! Mini-gona! Jaungoiko maitea, falta zitzaidana, estriptisa egitea!

ENKARNA: Lasai Katalina, ez zaizu ezer ikusten eta. Jaitsi ezazu gerriko hori pixkat eta listo. Begira 28 besterik ez dira gelditzen lerroan zure errain-gai Kukurruleti ezagutzeko.

3.ATALA/ 1.AGERRALDIA

DISKOTEKA. MUSIKA TEKHNOA ETA AHOTSAK. BIAK OZEN

HITZ EGITEN ARI DIRA MUSIKA ALTU DAGOELAKO.

KATALINA: Musika hau eretzeko modukoa da. Begira neska mutil horiei... Hori al da dantza egitea? Hau pena benetan! Kalambreak ematen ari zaizkiela dirudi eta!

ENKARNA: Katalina, gu gurera! Hau ez da "*mira quien baila*". Kukurruleti bila Katalina! Kukurruleti!

KATALINA: Ai! Ai! Ai! Begira hoiek! Begira nola ari diren jaten bata bestearen ahoak! Ave Maria Purisima! Hau Sodoma eta Gomorra da! Hori al da nire freskua?

ENKARNA: Bai, edan ezazu, ea zentratzen zaren!

F/X Edalontzia hartu.

KATALINA: Horrelako leku haundia izan eta tilarik ez edukitzea, zinestezina da, benetan! (Edan) Ze demondre eskatu didazu Enkarna! Zer nahi duzu hemen bertan hiltzea!

ENKARNA: Sansonorius da. Edari energetikoa, ea honek pilak jartzen dizkizun neska. Begira hango neska hura.

KATALINA: Non?

ENKARNA: Han, zutabe haren ondoan!

KATALINA: Jesus! Hemengo argi zoro hauekin ez dut piperrik ere ikusten!

ENKARNA: Zutabearen ondoan! Blusa gorria, beltzarana...

KATALINA: Ez, ez, ez, hori ez da nire Martintxoren Kukurruleti. Begira leporik ez dauka eta! Sorbaldak belarrirarte iristen zaizkio! Inola ere ez!

ENKARNA: Eta beste hura? Pintxoak dituen lepokoa daramana?

KATALINA: Brometan ariko zara ezta Enkarna? Mesedez, nire semearentzako emakume apropos baten bila gabiltza eta ez maskota bat.

F/X Takoiak gerturatzten.

LA SUSI: (Ozen eta zakar) Gin Tonic bat. Tanqueray!

ENKARNA: (Ahopean disimulatuz) Begira hau.

KATALINA: (Ozen) Nor? Hau?

ENKARNA: (Ahopean) Baaaai! Beltzarana, argala, metro ta 80 gutxi gora behera, begi berdeak, 21 urte inguru...

KATALINA: (Zalantza) Bai... Honek itsura ona dauka. Martintxorentzat haina izan daiteke bai.

F/X Edalontzia eta txanponak barra gainean utzi.

LA SUSI: (Ozen eta zakar) Zu! Hemen daukazu!

F/X Bilete mugimendu azkarra.

ENKARNA: Itxoin hemendik kobratu!

KATALINA: (Disimulatuz) Baina zer ari zara Enkarna...

ENKARNA: Guk gonbidatzen zaitugu politt hori.

LA SUSI: Eta zuek? Nondik atera zarete? Zer zarete nire amonaren lagunak ala go-go berriak?

ENKARNA: (Misteriotsu) Batek daki.

LA SUSI: Beno ba jakiten duzunean abisatu bale? Ah, eta eskerrik asko *trinkiarengatik*. Ale! Agur.

F/X Edalontzia hartu eta takoi hotsa urruntzen.

ENKARNA: (Mehatsatuz) Bai, abisatuko dizut, laster asko gainera.

KATALINA: Ze arraiotan zabilta Enkarna! Alkoholismoruntz daramazu neska gajoa! Nire etorkizuneko erraina!

ENKARNA: Bah! Orduan ez dago zalantzarik, bera da gure Kukurruleti ezta?

KATALINA: Bai, Martintxorentzako egokia dirudi.
ENKARNA: Ederki! Ba kumunera joaten denean, ZAS!
KATALINA: Zer esan nahi duzu ZAS horrekin?
ENKARNA: Nire eskuetan utz ezazu.

3.ATALA/ 2.AGERRALDIA

DISKOTEKAKO KUMUNAK. MUSIKA TEKHNOA HURRUNEAN (Fx
rever). SUSI KANTUAN. ITURRIA IREKITA. ATEA IREKITZEN DA
ETA KATALINA ETA ENKARNAREN PAUSUAK GERTURATZEN.

LA SUSI: Han! nire bizkarzainak. Ze! Puxikak ustutzeraz?
F/X Iturria itxi.
LA SUSI: Zer zabiltza, *flipatzen!*
ENKARNA: (Mafiosa) Ura garestia da politt hori!
LA SUSI: Beno, beno mesedez! Falta zitzaidana!
ENKARNA: Zein da zure izena?
LA SUSI: La Susi, zeinek galdetzen du?
ENKARNA: La Enkarna.
LA SUSI: Ah! Primeran!
F/X Perfume spray soinua.
KATALINA: Ene, zeinen usain ederra!
LA SUSI: Eau de u da. Nahi al duzu piska bat?
ENKARNA: (Zorrotz) Ez, ez du nahi. Mutilagunik ba al daukazu panpoxa?
LA SUSI: Eta zuri ze axola zaizu.
ENKARNA: Beno, jakinmina daukat.
LA SUSI: Ba ez! Ez daukat, ez.
ENKARNA: Hobe. Bat gutxiago. Eta zer ari zara ikasten? Ikasten bazabiltza, noski.

LA SUSI: Ba zure informaziorako, zuzenbidea ikasten ari naiz!
Baina modeloa naiz, modelo gisa egiten dut lan.

ENKARNA: Ai! Ze ondo Katalina! Australiako neska bezala,
modeloa! Baña olio-pintura modeloa?, zeren ez da
ezergatik baina, aurpegian daramazun pintura guzti
hori ikusita... zure gurasoek gisa hortan kalera
irtetzen lagatzen dizute?

LA SUSI: Begira, niri gurasoak esaten didatena ez zait piperrik
inporta. Gainera hemendik 1000 kilometrotara bizi
dira. Nik modan egiten dut lana, erropekin, ulertzen?

KATALINA: Begira, egia esan Susi, oso neska polita eta liraina
zara, baina hainbeste makillajek ez dizu mesederik
egiten. Egidazu kasu!

ENKARNA: Bai, hain da neska ederra kontu haundiarekin ibili
beharko lukeela, ezta Katalina? Mutil eder bat
ezagutu beharko luke, ondo zainduko duen norbait.

KATALINA: Hori oso garrantzitsua da Susi, mutil gaizto eta
itxuragabe asko dabil solte hor zehar. Begira nik nire
senarra 13 urte nituela ezagutu nuen eta...

LA SUSI: Benga, benga! Utzi niri pakean eta ez txaparik sartu!
La Susi bakarrik zaintzen da, La Susik Kick Boxing
egiten du!

ENKARNA: Kirk Bosin? Zer da hori? Ballet txinatar horietako
bat? Pistola ateratzen badizute ez Kirk Bosin ez eta
Kirk Duglasik, zuzenean zulora zoaz tentela!... Ene!
zer da hor ateratzen ari zaizun grano zahar hori?

LA SUSI: (Beldurtuta) Non, non?

ENKARNA: Hor! Masailean! Begira hor ispiluan.

KATALINA: Nik ez dut ezer ikusten Enkarna.

ENKARNA: (Poltsa irekiz) Hor, eskubiko masailean...

F/X Poltsako kremailera azkar zabaldu.

ENKARNA: ...eskubian.

LA SUSI: Non masail-hezurrean?

ENKARNA: Bai, hortxe hain zuzen ere. Baina usaindu ezazu musuzapi hau, begira zeinen lurrin gozoa.

LA SUSI: (Ahoa zapiaz lotua) Zer zabilta!

F/X Tirabira, Enkarnak Susiren arpegia kloroformoz bustitako mukizapiarekin estaltzen du.

ENKARNA: Hankak Katalina! Heldu hanketatik!

KATALINA: Baina Enkarna! Zer zabilta! Erotu egin al zara?

ENKARNA: Hankak Katalina, ostiya!!!!

LA SUSI: (Ahoa estalita) soltatu atso zaharrak! Me kaguen....!

ENKARNA: (Esfortzu haundiarekin) arnastu politt hori arnastu.

LA SUSI: (Lokartzen) solta nazazue aluak!

F/X Gorputza lurrera erori.

KATALINA: (Beldurtuta) Enkarna, baina zer egin dugu! Nire errain-gaia akabatu dugu! Jaungoiko maitea!

ENKARNA: Lasai! Kloroformoa da! Lo besterik ez dago!

KATALINA: Ziur zaude?

ENKARNA: Begira, bizilagunaren zakurrarekin probatu nuen eta 5 ordutara esnatu zen! Beraz mug! 5 ordu besterik ez ditugu hemendik nire etxera eramateko.

KATALINA: Zertarako?

ENKARNA: Zertarako izango da ba? Hemendik aurrera Kukurruleti dela konbentzitzeko!

KATALINA: Eta nola demondre aterako dugu ba hemendik?

ENKARNA: Oso sinplea. Horrelako lekuetatik gaur egungo gazteen % 90-a ateratzen den bezala, arrastaka!

4.ATALA/ 1.AGERRALDIA

ENKARNAREN ETXEA. SUSI AULKI BATERA LOTUTA.

ENKARNA: Gela hau papereztatzeke Martintxoren beste argazki berriagorik ez al zeneukan? Gainera pajaritarekin...

KATALINA: Ai! Hain dago guapoa! Nor ez da ba horrelako morrosko batekin maiteminduko?

ENKARNA: Bai Katalina, baina gaurko Martintxo ezagutu behar du eta ez lehenengo jaunartzea egin zuenekoa! Eta gela guztia bere irudiarekin papereztu ondoren... apaizez jaztea besterik ez zaigu falta!

KATALINA: Han! Han! Han! Gure printzesa, esnatzen ari da.

LA SUSI: (Esnatuz, ahozabalka) Joder! Hau da hau resaka!

F/X Aulkia mugitu bortiz

LA SUSI: (Beldurturik) Non nago? Zer da hau?

ENKARNA: Aulki batean zaude, esku eta oinak bertara lotuta eta ezin zara mugitu.

LA SUSI: (Bortiz) Oraintxe bertan askatzen ez banauzute ostiaka hasiko naiz gelditu gabe!

ENKARNA: Begira panpoxa! Ixilik egon zaitez eta entzun arretaz, bestela ostiak zuk hartuko dituzu eta.

LA SUSI: Baina nondik atera zarete? Eroetxe batetik? Benetan, askatzen nauzutenean ez dakit zer....

ENKARNA: (Zuzentzen) Tsu! Tsu! Tsu! Guk askatuko zaitugu, lasai, baina prest zaudenean soilik.

LA SUSI: Prest zertarako? Zuri aurpegia txikitzeke? Ze, hortarako bai! Hortarako prest nago!

ENKARNA: Ez, *so-lista*, beste norbait izateko prest zaudenean.

LA SUSI: Zertaz ari zara? zoroa! Ze zatozte sektaren batetik?

ENKARNA: Pertsona bat beste batean bihurtzeaz ari naiz.

LA SUSI: Eta nik zer ikusi dut txorakeri honetan!

ENKARNA: Zu zara beste hortan bihurtuko dena babua! Ez dugu denborarik, beraz mug! Orain zure pertsonai berriari buruz guztia ikasi behar duzu. Izena.

KATALINA: La Leti. Zure goitizena Kukurruleti.

LA SUSI: Zer?

ENKARNA: Sssshh! Ikasteko esan dizut! Adina eta lanpostua?

KATALINA: 21 urte. Modeloa.

ENKARNA: Ikusten, oso erraza, zu bezala! Egoera zibila.

KATALINA: Ezkongabea.

ENKARNA: Eta momentuz mutilagunik ere ez. Orain errepikatu!

LA SUSI: Zer?

ENKARNA: Errepikatzeko! Azkar! Izena!

LA SUSI: Zuek gaixotuta zaudete, benetan! La Leti, Kukurruleti, 21 urte, modeloa, ezkongabea (berretsiz) eta mutilagunik gabe.

ENKARNA: Oso ongi. Horrela jarraituz gero, agian ura ere emango dizugu. Orain, ezaugarriak.

KATALINA: Zintzoa, fidela, maitekorra eta ulerkorra.

ENKARNA: Zaletasunak.

KATALINA: Paseatu. Tabernatarara joatea. Futbolina, hau oso garrantzitsua da, eta moto lasterketak.

LA SUSI: Zoragarria.

ENKARNA: Tsu! Gustuak.

KATALINA: Amodiozko pelikulak, larrosak eta kibiak

ENKARNA: Kibiak?

KATALINA: Bai, kibiak, kiwiak. Ikaragarri sanoak omen dira.

LA SUSI: (Higuinez) buajjjj!

ENKARNA: Zer gertatzen zaizu orain?

LA SUSI: Kiwiak gorroto ditut.

ENKARNA: Ba hemendik aurrera benetan gustokoak izango dituzu, ulertzen? Benga, ezaugarriak.

LA SUSI: Zintzoa, fidela, maitakorra eta ulerkorra. Paseatzera joatea gustoko dut, tabernatara, futbolin mundua ikaragarri gustatzen zait eta motorrak zer esanik ez. Maitasunezko pelikulak, larrosak eta.....

KATALINA: (Animatzen) eta ki, ki, ki...

LA SUSI: eta kiwi nazkagarriak!

KATALINA: Ze ondo! Ikusiko duzu zein ongi moldatuko garen.

LA SUSI: Beno, joan al naiteke orain?

ENKARNA: Ez. Oraindik ez dugu bukatu. Bi gauza jakin behar dituzu. Bat, gaur arratsaldeko 7tan eta hilabete bat whatsapppean ibili eta gero, Martintxorekin lehenengo zita izango duzu, zure Kukurrutxo. Berataz txora-txora eginda zaude. Bera zure mutilaguna izango da eta zu bere neskalaguna.

LA SUSI: Baina, nola? ez dut ezagutzen eta!

KATALINA: Begira! Hau! Argazkikoa! Jatorra eh?

LA SUSI: (Izututa) Baina burutik jota zaudete! Argazkikoa? Nik uste nuen argazki horiek ni beldurtzeko jarri zenituztela. Gainera ez ditu 10 urte ere izango.

KATALINA: Ez Leti, lasai, orain 24 urte ditu eta ez dakizu zeinen morrosko ederra dagoen eginda.

ENKARNA: Bigarren gauza: hobe duzu gauzak ongi egitea, poliziarri ez deitzea edota ihes egiten ez saiatzea. Katalina jaso iezaiozu kamiseta zilborrate.

KATALINA: Lasai bihotza ez dizut ezer egingo eta.

F/X Kamiseta igo.

ENKARNA: Begiratu zure zilborraren eskubira. Korte txiki bat ikusten duzu?

LA SUSI: (Izututa) Ze ostra egin didazue? Putakumiak!

KATALINA: Jaungoikoa Enkarna! Zer egin diogu?

ENKARNA: Zure gorputzean “*agente externo*” bat duzu. Chip milimetriko bat zure nerbio sistemari loturik.

LA SUSI: (Izututa) Zer?

F/X Mandoa poltsikotik atera.

ENKARNA: Laburtuz, ikusten mandoko botoi gorria?

LA SUSI: (Izututa) Bai.

ENKARNA: Ba txorakeriaren bat egitea bururatzen bazaizu eta gure plana pikutara joaten bada, botoiari eman eta hiru segundutan zure nerbio sistema gelditu eta zulora zoaz, zuzenean. Ulertzen duzu?

KATALINA: Enkarna, baina monstruo batzuk bihurtu gara!

LA SUSI: Ja, ja, ja. Begira, ni ez nauzu engainatuko. Chip bat? Botoi gorria? Benga, benga! Ta nundik lortu duzu hori? Hori ez da existitzen.

ENKARNA: (Serio) Hori zure barnean dago, eta zuen hobe beharrez, eta zurea ere Katalina, hobe da nundik datorren ez jakitea. Gauza bakarra esango dizuet, herrialde gaizto, oso gaizto, baten sailkatutako armamentutik lortu dudala.

LA SUSI: Bai noski, eta orain zu Bin Ladenen alaba zara.

ENKARNA: Begira mukizu hori, gu zaharrak gara, eta ez zaigu denbora asko falta. Zuk aldiz, bizitza osoa aurretik duzu. Nahi baduzu hurrengo Sifer ere izan zaitezke. Guk ez daukagu galtzekorik, guri ez zaigu ezer kosta botoia sakatu eta espasmoz hiltzen ikustea.

KATALINA: (Fondotik) Ave Maria purisima...

ENKARNA: Katalina, ordua.

KATALINA: 6ak eta laurden.

ENKARNA: Kukurrutxo ezagutzeko ordua iritsi da.

F/X Laban zorrotz hotsa.

ENKARNA: Orain askatuko zaitut, badakizu zer egin?

LA SUSI: (beldurtuta) Bai, bai.

F/X Soka moztu.

ENKARNA: (Presaka) Mugikor hau zuretzako da, Martintxorekin, Kukurrutxorekin, komunikatzeko balio izango dizu. Guk honen kopia bat dugu, bertara sarrera duena.

F/X Domina duen lepokoa mugitu.

ENKARNA: Lepoko hau beti eramango duzu soinean, Kalbarioko ama birijina da eta bere barruan mikrofono bat du. Dutzatzeko kendu. Belarriko aparatu hau Martintxorekin geratzen zaren guztietan eramango duzu, horrela guk ere hitz egin ahal izango dizugu, bai? Gogoan izan zartagia kirtenetik guk daukagula, beraz txorakeria gutxi! Gogoratu, botoi gorria. Zalantzarik? (isilunea) Zalantzarik?

LA SUSI: (erdi negarrez) Ez.

KATALINA: Lasai Kukurruleti, dena super ongi irtengo da eta. Begira kibi batzuk ekarri dizkizut, zurituta daude.

F/X Plastikozko poltsa.

LA SUSI: (Erdi negarrez) Baina... Zergatik ni? Zergatik?

ENKARNA: (Leun) Munduan zu zarelako Kukurruletirik onena!

KATALINA: Jan politta. Honek on egingo dizu eta, bitamina C.

LA SUSI: (ozka egin eta goragalea) Buaagggg...

5.ATALA/ 1.AGERRALDIA

HERRIKO PLAZA. TXORIAK ETA KANPAI HOTSA. MARTINTXO
BANKU BATEAN ESERITA. SUSIREN TAKOIAK. ENK. ETA KAT.
WALKIEAREKIN.

ENKARNA: (Ozen) Kukurruleti, hemen amabitxi-Z. Entzuten diguzu? Zure objetiboa ikusten duzu?

LA SUSI: (urduri) Ez ohiu egin! Banku batean eserita dago. Oraintxe iritsiko naiz.

ENKARNA: Ondo da. Eta zu lasai, eh! Gu hemen gaude. Ah! eta botoi gorria ere bai. Ez ahaztu.

F/X Takoi hotsa gelditu.

LA SUSI: (poza exageratuz) Kaixo, Martintxo al zara?

F/X Martintxo zutitu.

MARTINTXO: (Lotsa exageratuz) Bai.

LA SUSI: Kukurruleti naiz.

MARTINTXO: (Lotsati) Ah, bai. Kaixo.

LA SUSI: Ez dizkidazu bi musu emango?

MARTINTXO: (Oso lotsatuta) Orain?... Beno, bale.

F/X bi musu (Martintxo ahoarekin).

KATALINA: (Pozik walkie) Hau da nire Martintxo!Goazen!

LA SUSI: Zu ezagutzeko amorratzen nengoen, Martintxo.

ENKARNA: (Zuzenduz) Nire kukurrutxo.

LA SUSI: (Arin zuzenduz) Nire kukurrutxo.

MARTINTXO: (Lotsaz) Ni ere bai Kukurruleti. Zuretzako dira.

F/X Lore sorta plastiko hotsa

LA SUSI: Larrosak! Ze detailea! gainera gorriak.

MARTINTXO: Maitasunaren kolorea, badakizu.

LA SUSI: (enfasiarekin) eta pasioa, neurrigabeko pasioarena.

ENKARNA: Lasai eh! Kukurruleti, lasai!

LA SUSI: (Usainduz) Uhm... zu bai zarela gizona. Zeinen egun ederra, elkar ezagutzeko aproposa, ezta?

MARTINTXO: Ba bai.... Eguzki ederra. Gainera, gaur hona nentorrela kaka zapaldu dut.

LA SUSI: (Harrituta) Zer!

MARTINTXO: Txakur kaka bai. Esaten dutenez zorte ona emanten omen du ezta?

LA SUSI: Bai noski, beste bat ikusten badugu, nik ere zapalduko dut, horrela zorte bikoitza izango dugu.

MARTINTXO: (barre tontoa) jajajaja. Nolakoa zaren!

ENKARNA: Nahikoa da! Zaletasunak Kukurreleti.

LA SUSI: (Pentsatuz) eh... Atzoko laisterketa ikusi al zenuen?

MARTINTXO: (Biziki) Asseneko saria. Lorenzo topera egon zen. Ikusi al zenuen Aoyamak egindako "*salida por orejas*"? mundiala ezta?

LA SUSI: (Zalantzaz) Hummmm, uste dut momentu horretan kumunera joan nintzela.

MARTINTXO: (Etsipenez) Ah, ze pena!

LA SUSI: (Arinean) Baina, baina.... Pedrosaren sudur-sarrera, hori bai! hori ikusi nuen, kristorena!

MARTINTXO: Ja ja ja... mundiala zara!

ENKARNA: (Serio) Egin ezazu barre.

LA SUSI: (Oso faltsu) ja ja ja...

F/X plastiko poltsa.

MARTINTXO: Kibi bat nahi duzu?

LA SUSI: (Txundituta) Kiwi bat?

MARTINTXO: Bai, nire amak eman dizkit etxetik atera baino lehen. Eta chatean zure fruitu gogokoena zela esan zenuenez.

LA SUSI: Hori da ama ona daukazuna! Nitaz hitz egin diozu?

MARTINTXO: (Zorrotz) Ez! Kasualitatea izango da.

LA SUSI: Edo agian amaren intuizioa.

MARTINTXO: Nahi al duzu pixkat?

ENKARNA: (Zorrotz) Bai, nahi duzu.

F/X poltsa mugitzen.

LA SUSI: (Nazkaz) Zurituta eta guzti. Zer nahi duzu egin orain?

MARTINTXO: (gatzgabe) Futbolinean jokatu nahi?

LA SUSI: Baina, nik ez dakit futbolinean jolasten. Ikustea bai, hori asko gustatzen zait.

MARTINTXO: Lasai nik erakutsiko dizut, zuk nahi baduzu, noski. Aurreko urtean auzoko txapelduna izan nintzen.

LA SUSI: Guau! Auzoko txapeldunarekin futbolinean ikastea! Begira uso horiek! Eman diezaizkiegun kiwiak!

F/X Usoak Urruan.

MARTINTXO: Usoei kibiak?

LA SUSI: Noski, aurreko astean dokumental batean ikusi nuen. Emaizkidazu!

ENKARNA: (Mehatsatuz) Kukurruleti, usoei ura ere ez! Entzun!

F/X poltsa mugitu.

LA SUSI: Begira nola gustatzen zaizkien kiwiak.

MARTINTXO: Aizu, ba egia da!

KATALINA: Jauna! Hainbeste ordaindu eta gero!

ENKARNA: (Mehatsatuz) Kukurruleti, hurrengoan botoi gorriari emango diot, gogoratu zeinek duen zartagia kirtenetik!

LA SUSI: Ale! Goazen ba futbolinean jolastera.

CAPÍTULO 5 / ESCENA 2

BOLERA. MÚSIKA (Rumba) ETA FONDOAN JENDEA JOLASEAN.

F/X Futbolineko golpe gogorra.

MARTINTXO: (Oso Pozik) ¡Goolaaa! ¡Toma! ¡Toma! y ¡Toma! 9-0. A ze nolako paliza!

LA SUSI: (Ironiko) Eskarrikasko erakusteagatik Kukurrutxo.

MARTINTXO: Orain futbolin azpitik pasa behar duzu.

LA SUSI: (Harrituta) ¡Ze esatezu! Broma, ez?

MARTINTXO: Ez. Legea da. Golik egiten ez duzunean futbolin azpitik pasa behar duzu.

LA SUSI: (Serio) Kukurrutxo, zure neska naiz, nola behartuko nauzu futbolin azpitik pasatzera!. Lurra nazkagarria da eta jende guzti horren aurrean.

MARTINTXO: Sentitzen dut Kukurruleti, neregatik balitz barkatuko nizuke...baina futbolina futbolina da.

ENKARNA: (Firme) Lurrera eta azkar.

LA SUSI: (Haserre) Ondo da! Ondo da!

F/X Zaborrean arrastatuz.

MARTINTXO: (hooligan moduan) Oe oe oe, oe oe oe, Galtzaile! Galtzaile!

F/X Arropa astinduz.

LA SUSI: ¡Ze nazka! Hurrena jolasa zure pu....

ENKARNA: (Firme) Tsu!... botoi gorria.

MARTINTXO: (Suabe) Sentitzen dut Kukurruleti, entrenatu beharra dut, datorren larunbatean txapelketa da.

LA SUSI: (Interesarekin) Larunbatean? a ze ezustekoa. Ba nik oso desfile garrantzitsua daukat. Eta min asko egingo lidake nirekin etorriko ez bazina.

MARTINTXO: (Arduratuta) Baina futboloko championsa da.

LA SUSI: Ta bestea modaren championsa, nire lanbiderako oso garrantzitsua, baita nire etorkizunerako ere. Eta zer da garrantzitsuagoa Kukurrutxo?

ENKARNA: (Arduraz) Uy, uy Katalina... emakume armak bistan.

CAPÍTULO 5 / ESCENA 3

HERRIKO PLAZA. TXORIAK ETA KANPAI HOTSA. ENKARNA
BANKU BATEAN ESERITA.

F/X Pausuak gerturatzen eta gelditu.

KATALINA: (Azkar) Hemen nago. Zer gertatzen da?

ENKARNA: (Serio) Bihotzarekin topo egin dugu. 3.Orrialdea.

F/X Aldizkari orriak pasaz.

KATALINA: ¡Uy! Hau Kukurruleti da, ze etorkizun haundia duen. Desfiletik hilabetera eta honezkero moda aldizkarietan ateratzen da.

ENKARNA: Moda ez, bihotzekoa “*del corazón*”. Irakurri titularra.

KATALINA: (Irakurriz) Susi Neruda de infraganti con su amante. (Arduratuta) Ezin da egia esan!.

ENKARNA: Beharbada. Baina hori ez da garrantzitsuena.

KATALINA: Egia da, garrantzitsuena Martintxok jakin ez dezan da, nahiz eta gezurra izan oso gaizki pasako du. Aldizkari guzti hauek erosi eta erre behar ditugu.

ENKARNA: Katalina, aldizkari arrosa huetako odol-zurruzatzaile hauek beraien lana oso ondo egiten dakite, haien berriak, egia ala gezurra, pestea baina azkarrago zabaltzen dira. Katalina, etsai haundien aurka borrokatu naiz, hacker, ogasun zerbitzua, espioitza zerbitzu sekretuak... baina aldizkari-arrosak... geldiezinak dira, guretzako gehiegi. Hau esatea oso gogorra da baina kirtena eskutik kendu digute.

KATALINA: ¿Zartaginarena? Ez Enkarna, ezin dugu etsi!
(Maltzurra) Oraindik botoi gorria gelditzen zaigu!

ENKARNA: Botoiarena gezurra zen emakumea!

KATALINA: (Etsita) Eta Mikrochipa?

ENKARNA: Katalina, Martintxok bere zartagiaren kirtena eusteko ordua iritsi da. Aldizkari-arrosari aurre egiteak gogortuko du, gizon bihurtuko du.

KATALINA: Eta Kukurruleti? Berarekin hain zoriontsua da

ENKARNA: Katalina, mundua Kukurruletiz beterik dago.